

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

100 DVD disko batean

GÉNÉRALE ELECTRIC enpresa estatubatuarrek iragarri berri du laster izango dela merkatuan 500 GB-eko disko optikoa; beste hitz batzuetan esanda, egungo 100 DVD bilduko dituen diskoa.

Disko berriaren tamaina oraingo DVDena izango da, baina desberdintasuna datuak gordetzeko eran datza. Gaur egungo DVDek laser sekuentzial baten bidez gordetzen dituzte datuak, eta disko berriek holograma moduan edo hiru dimentsiotan gordeko dituzte.

Diskoa laborategitik atera berria da, baina orain merkaturatze estrategia landu behar da. Lehenbizi eremu profesionalera zuzenduko da produktua, baina azkeneko helburua etxeko erabiltzailea da. Horretarako, disko berria irakurriko duen gailua diseinatu behar da, edo hobe esanda, disko berria eta egungo DVDa irakurriko dituen irakurgailua da diseinatu beharrekoa. Horrela, tresna bakarrarekin bi disko mota irakurri ahal izango dira.



Amazonasek inoizko ur-emaririk handiena du oraintxe

MUNDUKO IBAIKIRIK HANDIENAK, Amazonasek, inoiz neurtutako ur-emaririk handiena du une honetan. Antza, 2008ko abendutik eurte handiak gertatzen ari dira ekuatore eta tropikoen arteko herrialdeetan, eta horrek eragin du itsasoratzeko eremuan ibaia ohi baino 814 zentimetro sakonago izatea. Orain arteko sakonerririk handiena 2006an neurtu zen, baina oraingoak lau zentimetrotan gaintitu du jada orduko hura, eta oraindik igo-tzen ari da.

Datu honek badu eragina bertako ekonomian: arrantzaleek arrain gutxiago harrapatzen dute eta ondorioz, arrainaren prezioa asko garestitu da. Arrantzaleen kalterako, gutxiago saltzen dute eta.



Merkurio planeta, sumendien menpe

Eguzki-sistemako planetarik txikiena den Merkurioren gainazalaren %90 kartografiatu dute *Messenger* zundari esker. Besteak beste, sumendien eragin nabaria antzeman dute. Ikusgarriena, 700 kilometroko diametroa duen kraterra. <http://ttiki.com/3429>

Larruazalarentzako kremarik hoberenaren sekretua jaio berriek daukate agian

Herbeheretako Leiden Unibertsitateko ikerlari batzuek umetokian dauden umekien larruazala aztertuta, krema idealak izan behar lituzkeen ezaugarrien bila. Umeek, jaiotzean, larruazal indartsu eta leuna dute-eta. <http://ttiki.com/3430>

Izotzik gabeko udak uste baino lehenago iritsiko dira Artikora

Orobat, mende honen amaierarako aurreikusten dute zientzialari gehienek izotzik gabeko uda Artikoan, baina Washingtongo Unibertsitateko ikerlari talde batek mende honen erdian, edo lehenago, ezarri du gertakari horren hasiera, azken bi urteetako datuetan oinarrituta. <http://ttiki.com/3431>



Zientziari buruzko galderaren bat egin nahi badiguzu, bidali zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16